- **Puntuak:** (notaren ondoren idatzi ohi dira eta, nota honen balio erdia gehitu behar dela adierazten du). Isiluneetan berdin gertatzen da.
- **Hirukoteak:** 2 kortxeak eta kortxea hirukote batek konpasaren denboran balio berdina dute, nahiz eta azken honetan nota bat gehiago izan.

- **Errepika:** Gaur egun perkusio instrumentuentzat erabiltzen den grafia aukeratu dugu, zenbat kolpetakoa den zehaztea jotzailearen esku utziaz.

- **Kontatzeko era:**

Beltzak: **ba/ bi/ ru/ la**

Kortxeak: **ba ta/ bi ta/ ru ta/ la ta** (edo 1 + / 2 + / 3 + / 4 +)

Kortxea hirukoteak: **ba ta ta/ bi ta ta/ ru ta ta/ la ta ta**  
(edo 1tt/ 2tt/ 3tt/ 4tt)

Kortxeaerdiak: **ba ka ta ka/ bi ka ta ka / ru ka ta ka/ la ka ta ka**  
(edo 1ktk/ 2ktk...)

- **Denbora adierazleak:** 6/8, 3/4, 2/4, 3/8, 4/4=C, 5/4, 5/8...

- **Dinamikak:**

Pianississimo = **ppp.** Oso, oso suabe (ia entzuten ez dela).

Pianissimo = **pp.** Oso suabe

Piano = **p.** Suabe

MezzoPiano = **mp.** Ez hain suabe


FortePiano = **fp.** Azentu indartsua eta berehala suabe


MezzoForte = **mf.** Nahiko indartsu

Forte = **f.** Indarraz (eman lasai)

Fortissimo = **ff.** Indar gehiagoz

Fortississimo = **fff.** Autsi gabe, baina eman!

 = **Crescendo:** indarra gehitu gradualki

 = **Decrescendo:** indarra gutxiagotu gradualki (diminuendo)

Ritard = Gradualki moteldu

- **Azentoak:**

Azentoak edo fuertexeago entzuten diren kolpetxoak jotzeko orduan, ondorengo bideak erabili daitezke:

- Pandereta jotzen duen eskuaz (normalki eskubia):
  - Hatz bat baino gehiago erabili, indar berdinez kolpe beteagoa lortuaz.
  - Hatz gehiago erabili gabe, eskua gehiago urrutiratu eta indar gehiagoz eman kolpea.
- Pandereta eusten duen eskuaz (normalki ezkerra):
  - Une horretan pandereta, jo behar duen eskuruntz mugri arazi, perkusioaren abiadura handiagotzean kolpe indartsuagoa lortuaz.

Erne! Liburu bat irakurtzean gertatzen den gauza berdina gertatzen da musika irakurtzean:

Irakurtzen dugunean oinarrizko datuak besterik ez dakizkigu; idazkeraren bidez erritmoaren espresioa, estiloa, eta beste hainbat nabardurari buruzko ia daturik ezin da gorde. Adibide gisa, irakurri pelota partida baten laburpena inoiz frontoian egon ez den bati. Ezetz joan!

Hemen azaldu ditugun erritmo guztiak **kuantizatuak** daude. Espresioa eta jokera murriztu behar izan ditugu irakurketa ulergarri bat lortzearen. Beraz, zure lana da irakurle, hazi bihurtu duguna berriz zuhaitz bihurtaraztea eta, irakurtzeaz gain musika on asko entzunaz bakarrik lortuko duzu.

#### 6.4. AZTERTUTAKO JOTZEKO ERA

Panderetak, laguntzen duen musika eta zeregin honetan jotzaileak lortu nahi duen helburuaren arabera, jotzeko era ezberdinak onar ditzake.

Laburbildu nahirik, jotzeko era mordo hauetatik bat aukeratu dugu eskuliburu honetan aipatzeko: esku batez instrumentua eutsi eta besteaz jotzen den era, bai perkutituaz, bai arrastaka; gehienetan hatz puntekin.



3 hatzak batera.

Honela, gaur egun Euskal Herrian erabiltzen den jotzeko eratako baten isla-da paper gainean jartzea izan da gure asmoa.

#### 6.4.1. Banakako eta binakako kolpeak

##### 6.4.1.1. Banakako kolpeak

Bi kolpe ezberdin ditugu.

Eskubiko erdiko (edo bihotzeko) hatzaz. Normalki, hots handia behar izaten denez, bihotzekoa, ondoko bi hatzez inguratuta jo ohi da.



Hatz lodiaren (edo handiaren) puntaz (zenbaitzutan gorputzaz).



##### 6.4.1.2. Binakako kolpeak

Bi kolpe ditugu.

Lehenengoa erdiko hatza, bakarrik edo inguratua, (erakuslea eta eraztun hatzaz



3 hatzen kolpea goitik ikusia.

Bigarrena, igurtziketarik gabeko errepika egiteko denean, erakusleaz (edo indar gehiago behar izanez gero, aipaturiko hiru hatzez),



3 hatzen kolpea  
goitik ikusia.

eta, erritmoa eramateko bada erdiko hatzaz edo bateginda hiru hatzez,



3 hatzen kolpea  
goitik ikusia.

(era hau, bestelako azalpenik egon ezean, sol giltzaren bi “mi” notatxoak elkarrekin dauden aldiro erabiliko dugu).

#### 6.4.2. Errepika

Hitz hau haizea, metala eta sokazko instrumentuek lortzen duten iraupen luzeko hotsaren antzeko efektua adierazteko erabiltzen dugu perkusio instrumentuetan.

Idazkera honekin adierazten da:





#### 6.4.2.1. Larrua igurtziaz

**Aurrerantz:** erdiko hatzak pandereta eraztun aldean aurreruntz igurzten due-nean.



**Atzerantz:** hatz lodiak pandereta eraztunaren norabidean gure norantzan igurzterakoan sortua.



#### 6.4.2.2. Igurzketarik gabe

Hirunakako kolpeak: erdiko, erakuslea eta hatz lodia konbinazioa gelditu gabe tartekatuz azkar mugitzerakoan sortzen dena. (Ematen den kolpe bakoitza indar berdinez ematen saiatu). Indar handiagoa behar izanez gero, 3 hatz-3 hatz-hatz lodia konbinazioa erabili.



Arozena, Urko: Panderoa jotzen ikasteko eskuliburua

Binakako kolpeak: erdiko eta hatz lodia konbinazioa azkar jotzerakoan lortzen dena.



#### 6.4.2.3. Astindua

Pandereta, hau eusten duen eskuak alde banatara azkar eta gelditu gabe astintzean lortzen dena.



Hainbat emaitza lortzen direnez, norberak ikusiko du bakoitzaren komenigarritasuna. Argi dago errepika nahiko luze bat egiterako orduan zein era erabili behar den (mozten ez dena noski).

## 6.5. HISTORIA APUR BAT



Aingerua kriskitindun panderetaz organoa laguntzen. 1300.eko orduen liburu flamenkoarreko miniatura.

Perkusio familia zabaleko instrumentu bat dugu aztergai. Bere inguruan sorturiko usteak argitzea da gure asmoa.

Pandereta, denbora luze batean ia aldaketarik bizitu gabe iraun duen astindu eta igurtzitako idiofonoa dugu, funtsean aspaldiko garaietan bezala azaltzen zai-gu (harri landu, eskuizkribu eta marrazkietan).

Gaur egun ere musika herrikoian garrantzi handiko instrumentua dugu (txistulariek, albokariak, trikitilariak, abeslariak, dantzariak, soinu-jotzaileak, rockeroak, e.a.ek erabilia).

Historian murgilduz, *perkusio instrumentuez gurtu dezagun Jainkoa* Testamentu Zaharrean kapitulu guztietan jotzen denari egiten zaizkion etengabe-ko erreferentziak, israeldarren musikan perkusio instrumentuek duten garrantzia baieztatzen du.

Erreferentzia biblikoek zeresan handia dute duela 5000 urteko perkusio instrumentuen erabilerari dagokionez, gure hiru informazio iturriak (indusketa arkeologikoak, pinturak eta literaturak) baieztatzen dituztelarik aipaturiko testi-gantzak.

Indusketa arkeologikoen, K.a. 3000. urtean txintxirrin, plater txo eta danbo-rren gisako instrumentu xumeen erabilerari buruzko argibideak dakarzkigute.

Babilonia hegoaldeko tenplo bateko ikerketetan, Bismya-n, K.a. 3000. urte-ko edalontzi zati batean arpa eta pandero karratu bat dirudien danbor bat jotzen duten musikariak azaltzen zaizkigu. Hau da, ziurraski musika instrumentoei buruz dugun irudikapen pikturik zaharrena.

Filadelfiako Unibertsitateko museoan, K.a. 2700. urteko Ur-eko Errege Hilerriko plaka batean, sistro bat eta pandereta bat jotzen dituen izaki txakal burudun bat ikus genezake.

Beste dokumentu batean, Paris-eko Louvre museoan, K.a. 2500. urteko edalontzi sumeriar batean, alde banatan zutik dituen musikarien sorbaldarainoko pandero bat azaltzen zaigu. Irudikapen honi buruzko iritziak jaso ditugu:

- J.Blades jaunak dionez, pandereta handi bat dirudi, larruaren zirkunferentziaren inguruan metalezkoak izan daitezken ziri handiak ikusten baitira.
- Galpin jaunak, aldiz, ziri hauek larruak eusteko daudela dio, pandereta izan ordez, panderoa izanik aipaturiko instrumentua.

Egipto bertan, Inperio Berrian, beste batzuren artean pandero zirkularrak eta karratuak (herri xumeak “pandereta” deituak) azaltzen zaizkigu. Aipagarria da, garaiko dokumentu guztietan jotzaileak emakumeak izatea (jakina da, beste hainbat tokitan bezala, musikaren praktika emakumeen esku zegoela).

Danborra kasu guztietan eskuekin jotzen da, leku askotan animaliairen larrua sakratutzat zeukatenez, agian makilez jotzea tabua zelako.

Nemrod-eko Jauregiko (K.a.VII.mendeko 2. erdia) bolizko kaxa baten zati batek musikoen prozesio bat erakusten digu.”Perkusio joleek” ezkerreko eskuaz eusten duten pandero txiki bat jotzen dute: ikusten denez esku hone-tako lau hatzek tinbrea kontrolatu edo eskubiaz emandako kolpeak laguntzen dituzte.

Egipton, Osorkon II.aren garaian (K.a. 800. urtean) erabilitako metro bat inguruko diametroa duen pandereta aurkitu da.

Museo askotan daude pandero zirkularrak, gehienak tamaina txikikoak.

Egipton ezagutzen den pandero karratu bakarra, Tebas-eko indusketa arkeologiko batean aurkitua da eta Kairo-ko museoan dago. Ez da kriskitinen arrastorik azaltzen.

Itun Zaharrak (Genesitik Ezekiel bitarteraino) toph-ari buruz (danbolin eta pandereta bezala itzulia) egiten dituen aipamen ugariak onartu den legez, Mesopotamia eta Egipton jadanik ezagutzen zituzten eskuzko danbor txikiei buruzkoak dira.

Adibide piktoriko hauetako batean, Irteera XVe-ko Moises-en ereserkian irakur genezakenez, Miriam (Miren, Mari, Maria) profetak “...**tinpanoa** bere eskuetan hartu eta emakume guztiak atzetik jarri zitzaizkion **tinpano**-ekin eta dantzan...”.

Erne irakurle, aipamen honekin: argitalpen batean, pandereta modernoaren antza handiko instrumentu batekin azaltzen zaigu Miriam. Eratzunean kriskitinak

ala hauentzat egindako irekidurak ikus daitezke beste zenbait argitalpenetan. Beste adibide batean, Miriam berak tinbal bat jotzen du kaxa jotzeko makilekin. Beno, gaur egungo argazkilari eta dokumentalgileek duten meritua aipagarria dela ezin uka genezake.

Arabia eta Pertsian, K.a.3000. urte inguruan, mesopotamiar, hindu eta semita kulturen eragin nabaria jasango dute euren musika zaharrean eta jatorrizko instrumentuetan, hau da, txirula eta pandereta gisako danborretan.

Panderoak jada bi formatan azaltzen zaizkigu islamiar aurreko garaian: karratua eta zirkularra, **duff** izenez, (**toph** hebrearraren familikoa). Sachs jaunaren ustez, duffa danbor karratu edo oktogonalarri deritzo soilik; zirkularrak, berriz, **da'ira** (edo zirkularra) izen generikoa daramate.

Danbor zirkularretan handiena **ghirbal**-a zen, galbahe baten antzeko instrumentua eta, Farmer jaunaren ustetan, ez zuen kriskitinek, larruaren azpikaldean bordoi tenkatuak baizik (Peninsula Iberiarreko arabiarrek **dof** izeneko antzeko instrumentua zuten). Bordoiei buruzko lehenengo aipamena dugu (lehendik eza gutzen ote zituzten?).

Panderetaren kriskitinei buruz, Stainer jauna aipatuko dugu: "...danbor zaharrek ba al zeramatzaten txilintxorik, metalezko laminak ala eraztunean txertaturiko kriskitinek, gure pandereten antzera? Ziurraski bai."

**Bendyr** (Bendair) danbor arabiarrari buruz hitz egiterakoan honela dio Stainer-ek: "eraztunean irekitze batzu dakusagu, honek kriskitin motaren baten txertaketan pentsatzea dakarkigu..." Bendyr-ak, ghirbal-aren antzera, larruaren azpikaldean bordoiak daramatza.

Arabiarrek pandereta eurek sortu zutela diote.

Europar sartuaz, erromatarrek pandereta erabiltzen zutela jakina dugu eta, hona etorri zirenean, eurekin ekarriko zituzten aisialdirako instrumentuak: platerak, pandereta eta danborrak.

Europar ahots-musikari eman zitzaien garrantzia dela eta, musika instrumentuek geldialdi luze bat ezagutu behar izan zuten.



Panderoa izan daiteken danborraz gaita laguntzen Pordoia kanpoaldean duen danborra makilaz jotzen du tximua dirudien izaki batek. 1300.eko orduen liburu flamenkoarreko miniatura.

Pandereta Erdi Aroan oso ezaguna zen Europa osoan. Hau zen Mediterraneoan danborrek hartu zuten forma. Bertako zibilizazio zaharretan oso ezagunak ziren alde bat partxerik gabe zuten danbor lauak (panderoak).



Bi organu portatil eta fidula pandereta kriskitindunaz lagunduak. Aingeru musikariak, florentziako margo anonimoa. 1350 urtea.

Instrumentu erabiliena gaur egungo panderetaren itxurakoa zen, eta XIX. mendeko instrumentu turkiarren antza zuen. Marrazki, egur landu eta era berean XI. mendetik aurrerako Erdi Aroko esku izkribu marrazkietan gehien azaltzen zaigun mota da hain zuzen turkiarra: lau edo kriskitin joku gehiago ditu binaka distantzi beretan banaturik; kriskitinok, ahurrak beharrea konkortuak izateaz gain, gaur egungoak baino mardulagoak dira ( "gaur egungoak" Grover markako panderetak erabiltzen duen kriskitina du erreferentzia, hau da, 4 cm diametroko kriskitina).

Hainbat instrumentu kriskitinik gabe azaltzen dira eta beste batzu; aldiz, zintzarri mihidunak edo eta beste kriskitin mota batzurekin.

Kasu batzutan, partxe gainetik edo azpitik dauzkan bordoi bakarraz edo gehiagoz azaltzen zaizkigu danborrok. Beste batzutan, danborraren eratzunaren kanpoaldean gorputzean edo bordoietan zintzarritxoak eta kriskitinak azaltzen zaizkigu.

Askotan, Erdi Aroko instrumentu hauek, zirkularrak izan ordez karratuak ziren. Zenbaitzutan bi larru zeramatzen eta, bat baino ez zutenek, alde bat irekia ala egurrez estalia zuten. Praetorius-ek (1619), halako instrumentuak marrazten ditu, tinbal mota direla esanaz.

Eratzunaren egurra irekiaz, metalezko laminak kokatzen dituzte; hauen ordez plater txikiak, zintzarritxo mihidunak ala kaskabiloak (txintzarriak) ere aurki genitzake.

Hain ezagunak ziren instrumentuak, esku bakarrez ala biz astinduak, batek eusten zuen bitartean besteak jo edo larrua igurtziaz jo zitezkeen.

Juglareek oso erabilia zuten pandereta. XIV. mendeak batik bat errepresentazio ugari utzi dizkigu.

Hala ere, tinpano zaharrak kriskitinek ez zuenez, panderetaren agerpena Europan Ekialdeko eragin batek azalduko luke.

XVI. mendeko hainbat musikologok, nahiz eta erabiliak izan, danborrik ez dute onartzen musika instrumentuen artean.

1585. urtean, Enrike III.a (Frantziakoarentzat) egindako entziklopedia ilustratu bateko eskuizkribu batean, beste hainbat instrumenturen artean pandereta azaltzen zaigu.

1588. ean, Arbeau-k azalpen argiak eskaintzen dizkigu.

Handik aurrera, informazioa gero eta zehatzagoa izango da. Praetorius (1619) eta Mersenne-k (1636.ean) argibide ugari eskainiko dizkigute euren marrazki eta azalpenetan.

Praetorius-ek (1619) panderetari "moroen danbor txikia" deritzo. Mersennek (1636) "tambor de Bisquaye" eta Berlioz-ek (1844.ean) "Tambour de basque".

Pandereta, maiz aingeruen esku azaldu arren, lagin askotan nekazarien instrumentua zen, musiko ibiltari, haginlari eta juglareena.


Erdi Aro amaieran kontzertuko musikan sartzen zen. Adibide gisa, Enrike VIII.ak lau pandereta zituen hirurogeita hemeretzi muskariz osaturiko taldean.

Musika erritmikoan osaturiko zenbait taldetako parte izanik, beste instrumentuen antzera izendapen asko jaso zituen.



Mersenne-ren L'Harmonie Universelleko orria. Alde batean larrua duen pandereta kriskitin eta kaskabiloduna ikus daiteke. Tambour de Bisquaye (Bizkaiko danborra) deritzo (1636 urtea).

Honako taula hau prestatu dugu, jasotako informazioaren arabera, argitzeko balioko duelakoan:



Zuhaitza pixka bat azaldu nahirik

Panderoa: kriskitinak edukitzean ala ez, bi taldetan banatzen dira:

**Panderetak: kriskitindunak**



Argazkiko pandereta guztiek antxume larruzko larrua dute (erdiokoak ez du larrurik). Denek kriskitinen bi lerro dauzkate, batera ala tartekatua. 25cm eta 30cm arteko diametroa dute eta sakonera, 5´25cm eta 7cm artekoa. Larrua era ezberdinean jartzen dela ere ikus daiteke (josia, iltzatua, egurrezko eraztunean gratatua).



### **Pandereta, danbor kriskitinduna da, panderoen familikoa**


Forma ugari har ditzake: karratua, zirkularra eta oktagonala (Japonen).

Alde bat ala biak larruz estaliak izan ditzake, hauek lotuak ala hiltzatuak izanik.


Hatzekin, eskuekin eta baketekin jotzen da.

Kriskitinak, metalezko plater txikiak pareka, zintzarritxo mihidunak eta kaskabiloak izan ohi dira, kopurua aldakorra izan arren, beti eraztunean txertaturik ala kanpoko aldetik egoten direlarik.

### **Panderoak: kriskitinek gabeak**



Ginea eta Sierra Leonako Siko panderoa. Eskuz ala ziri pare batez jo ohi da. Taldea neurri ezberdineko bost danborrek osatzen dute: Rolling-a, Wamban-a, Toublok-a, Baba eta Solo-a.



Mexikoko Huasteke panderoa. Makilarekin jotzen da.

**Panderoa: gorputzean kriskitinik txertaturik ez duen eta larru barrualdean edo kanpoaldean bordoia eduki dezaken danborra da.**

Kaskabiloak, ohituraz egitura karratuaren barrualdean, eta barruko bordoietan tartekatua eduki ditzake. Forma ezberdinak har ditzake, hala nola: karratua edo zirkularra. Informazio iturrien arabera, gaur egun karratuak bakarrik erabiltzen dira. (Bodhram-a ez dute panderotzat hartzen nonbait...).

Larru bat hala bi izan ditzake, bai lotua, bai hiltzatuak.

Hatzekin, eskuekin eta makil batekin ala birekin jotzen da, hainbat lekutan jotzeko era ezberdinak erabiltzen dira.



Beste tresnen artean, Asturiasen hain erabiliak diren pandero karratua eta pandereta ikus genitzake.

## 6.6. AIPAGARRIAK

### 6.6.1. Erabilera

Panderoak eta panderetak, musika taldean erabiliak izateaz gain, askotan, abeslariaren eta dantzariaren laguntzaile gisa ibili izan ohi dira. Edozein musika tresna jotzerakoan egin behar izaten dena egin beharko dugu orduan: **ondokoak entzun**.

Gure aurrekoek erabili izan duten aitzakiarik ez dugu instrumentuen forma eta erabilerari dagokionez (betidanik hala deitu izan zaio...).

Benetan da garrantzitsua instrumentu bakoitza dagokion bezala izendatzea.

Irakurritako testuetan, orokorrean Panderoa eta Pandereta, karratua edo zirkularra izateak bereizten ditu, salbuespenak salbuespen.

Gaur egun orokorrean, kriskitinak edukitzeak bereizten ditu. Honela, Panderoak ez du kriskitinik (batzuetan kaskabiloak dauzka) eta Panderetak bai.

Hala ere, Jose Manuel Agirre Tolosako artisauak esperimentu bat egin du: bi larrudun pandero karratu batean kriskitinak jarri ditu, pandero kriskitinduna sortuz. Honelako froga egiten den lehen aldia da guk dakigula: ZORIONAK!

Hitz hauek zuzen erabiltzek gure ondorengoei buruhauste latzak saihestuko dizkie. Galdetu bestela informazio bila abiatzen den edozein musikariri...

### 6.6.2. Eratzun kriskitinduna

Panderetaren oso antzekoa, baina larru gabekoa. Panderetaren familikoa. Berau, kriskitinak dituen egurrez, plastikoz edo metalez egindako eratzun edo eratzunardi mehea da. Instrumentu hau, K.a. 500. urte inguruko greziar edalontzi batean azaltzen zaigu (Pragako Museo Nazionalan), Erdi Aroko eratzunarekin hantzekotasun nabaria izanik: gaur egun oso erabilia da.



Kriskitin kopuru ezberdina eta egur ezberdinez egindako eratzun kriskitindunak. Kriskitinentzako erabili ohi diren metalak: beriloa, alpaka, kolore ezberdineko ojalata eta kobrea. Eratzunarentzako, pinua eta pagoaren egurrak erabili ohi dira.

### 6.6.3. Hiztegitxo

Iberiar Penintsulako zenbait tokitan instrumentuok izendatzeko honako hitz hauek erabiltzen dira:

#### Galizian:

Arxouelas: panderoaren lau angeluen barrualdean jartzen diren kaskabiloak.

Pandeiro: bi aldeak antxume larruz estaliriko egurrezko markoa, barruan kaskabiloak daramatzalarik.

Pandereta: metalezko lamina zirkular mugikorrez inguraturiko eta alde bat larruz estalia duen armazoi zirkular gogorraz osatua.

Ferreñas: larru gabeko pandereta. Gaur egun ez omen da ia erabiltzen musika folklorikoan.

Pandeira: pandeiro zirkularra, panderetaren itxura antzekoa izan arren, metalezko lamina zirkular mugikorrik ez daramana.

Binco: panderoa.

### **Katalunian:**

Sonalles: larru gabeko pandereta.

Alduf: panderoa.

Cercol: eraztun kriskitinduna.

Sonaja: kriskitinak.

Rodaja: *Sonaja*-ren sinonimoa da. Larrugabeko pandereta.

### **Gaztelan:**

Sonaja: larrurik gabeko pandereta.

Tímpano: *atabal* eta *timpas*-en sinonimoa (atambor-a, tambor tabal-a eta atabala = timbales o tímpanos).

Adufe: panderoa.

Adufre: moroen panderoa. Dantzarako emakumeek erabiltzen duten danbolin baxu eta karratu mota bat da eta pandero izenez ere ezagutzen da.

### **Panderetari dagokionean:**

Gaztelera: **Pandereta**

Frantsesez: (Le)**Tambour de basque**

Italieraz: (Il)**Tamburello basco / tamburo basco / tamburino**

Ingelesez: **Tambourine** (orokorrean **frame drum** begiratu, danbor markoduna)

Alemanieraz: **Schellentrommel**


## 6.7. INSTRUMENTUAREN ZAINKETARI BURUZKO OHAR BATZU

Eskutan daukazun instrumentua bizia da. Zuran eta batez ere antxume larruan eguraldi aldaketak, hotz-beroak eta kolpe bortitzegiak berehala nabariko dira.

Bere zorroan gorde eta ez utzi kotxean, eguzkitan behintzat.

Larruaren tentsioa aldakorra izanik, oso lasa dagoenean behintzat eta **larrialdi** batetik ateratzeko, berogailuan edo eguzkitan utzita tentsatu genezake (nahiko arriskutsua da hala ere, gehiegi lehortzen da instrumentua eta zartatu daiteke).

Larruak bizitza mugatua du. Kriskitinez gain entzuten den tonoa entzun nahi izanez gero, maizago aldatu beharko duzu. Tonoa entzun nahi ez baduzu, larrua ito beharko duzu hasieran behintzat (zelo eta paper puxkatxo batekin aski duzu, pandereta barrualdean).



Pandereta egiteko beharrezko zatiak: Eratzun gorputza, larruarentzako eratzuna, larrua, kriskitinak...

Nolanahi ere larrua aldatu daiteke. Larru zartatuaz jotzea utzikeria nabarmenaren seinale da, instrumentua gehiegi maite ez duenarena...

Alemaniko "Kolberg" perkusiojole asmatzailearen lanari esker, gaur egun Tolosako J. M. Agirrerenean neurri, kolore eta kriskitinak alda daitezkeen panderetak dituzu eskuragarri. Aukera paregabea tinbre ezberdinak deskubritu eta frogatzeko!



Kolberg perkusiojole asmatzaileak beste hainbat asmakizunen artean, orkestratako perkusiojoleek izan ohi dituzten hainbat buruhauste ekiditeko pandereta funtzio orotarikoa asmatu zuen: hatzaz igurtziriko eten-gabeko errepika egin dezake. Momentuan afinatu daiteke, kriskitinak aldatu edo jarri eta kendu daitezke, e.a.

## 6.8. ESKU, HANKA, BURU (KOREOGRAFIA)

Pandereta eskuez gain zenbait gorputz atalekin jotzerakoan sortzen den dantza mugimenduari deritzogu. Konpasaren pultso bakoitzeko kolpe bat ematea aholkatzen dugu. Honela, mugimendu kopuru ezberdinetako “koreografia” auke-  
rak daude.

### Gorputz atalak, pandereta ezkerrez eusten dela suposatuz

- 1: eskubiko eskumuturraren goiko aldea edo hatzen hasiera eta eskua elkar-  
tzen diren lekua
- 2: eskubiko eskumuturraren beheko aldea edo eskubiko eskuaren hatz puntak
- 3: eskubiko ukalondoaren kanpoko hezurra
- 4: kopeta
- 5: kokotza
- 6: ezkerreko belaunaren aurrekaldea
- 7: eskubiko belaunaren aurrekaldea
- 8: ezkerreko oinaren punta
- 9: eskubiko oinaren punta

### Mugimenduak

- 3 mugimendu: 1-3-2 (nahi adina errepikatu. Ahal izanez gero musika esal-  
dia errespetatuz). 3/8, 3/4 eta 6/8 konpasentzako egokia.
  - 4 mugimendu:
    - a. 6-1-3-2.
    - b. 6-7-1-2.
    - c. 6-1-4-2
    - d. 8-2-9-2
    - e. 5-2-4-2
- 2/4, 4/4, 6/8 eta 12/8 konpasentzat egokiak.

- 6 mugimendu: 6-7-1-2-(2 denboratako errepika astindua). 3/8 eta 3/4 konpasentzat egokia.
- 8 mugimendu: 6-1-7-1-3-2-4-2. 2/4, 4/4, 6/8 eta 12/8 konpasentzako egokia.
- Mugimendu errepikapenak. Orain arteko proposamenekin nahi adina konbinazio egin daitezke (beti esaldi musikala errespetatzen saiatuz, ez edozein unetan). Hauetaz eta zuri bururatuko zaizkizunetaz aparte proba itzazu ondorengook:
  - a. 6-7, 6-7, 6-7, 6-7,. Beti saltoka eta
  - b. 9-5, 9-5, 9-5, 9-5. Hau ere saltoka. (Ahal adina luzatu!)
  - c. Zenbaitetan, esaldi musikalaren amaiera markatzeko erabili izan dira (fandangoaren azken bi konpasetako 2., 3. eta azken konpasaren 1. denboran kolpe bana joaz, esku-ukalondo-esku konbinazioaz).

Koreografia deritzogun mugimendu multzo honen helburu garrantzitsuena ondorengoaren bista alaitzea denez, orduan eta esajeratuago, hobe (beti neurrian).

## 6.9. BIBLIOGRAFIA ETA DISKOGRAFIA

### 6.9.1. Bibliografia

- ANDERSON, Bob: *Luze-luze*. Integral editoriala
- ARANBURU, Mikel: *Glosario de instrumentos de música tradicionales vascos* (cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra). Iruñea: Príncipe de Viana.
- ARANA, José Antonio: *Música vasca*. Bilbo: C.A.V. editoriala, 1987
- ASSELINÉAU, Michel, eta abar: *Música y danza tradicionales de Europa*. J M Fuzeau. Courlay, 1995
- AZKUE, Resurrección María de: *Cancionero popular vasco*. Bilbo: Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca, 1968
- BASSO, Alberto: *Dizionario enciclopédico universale della musica e dei musicisti (IV.Zbkia)* Torino, 1983-84
- BAROJA, Julio Caro: *Baile, familia, trabajo*. Donostia: Txertoa editoriala, 1976
- BAROJA, Julio Caro: *Estudios vascos*. Donostia: Editorial Txertoa, 1973
- BELTRAN, Juan Mari: *Euskal Herriko soinu tresnak* (Diskaren sarrera textoa). Donostia: Ediciones ELKAR, 1985
- BELTRAN, Juan Mari: *Soinutresnak euskal herri musikan*. Egin. 1996
- BLADES, James: *Percussion instruments and their history*. Londres: Faber and Faber editoriala, 1975
- BUCHNER, A: *Folk music instruments of the world*. 1971
- Jentilbaratz. 10, 2007, 79-106

- COPLAND, Aaron: *What to Listen for in Music*. EEBB: McGraw-Hill Book Company, 1985
- CUCCIARDI, Felipe: *La batería acústica*. Valencia: Ribera editores, 2000
- CUEVAS, Richar eta MTZ. DE GEREÑU, Oscar: *Panderorako metodoa*. Gasteiz: Gasteiz-eko trikitixa eskola, 1993
- DAUVILIER, Charles: *Viaje por España*. 1862
- DEARLING, Robert: *The ultimate encyclopedia of musical instruments*. Robert Dearling editorea
- Diccionario polígloto de la terminología musical*. Bärenreiter, 1978
- DONOSTIA, Aita: *Instrumentos de Música Popular Española*. (Obras Completas del P. Donostia, 2. alea. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1983
- DONOSTIA, Aita: *Instrumentos Musicales Populares Vascos*. (Obras Completas del P. Donostia, 2. alea. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1983
- DONOSTIA, Aita: *Música y Músicos en el País Vasco*. (Obras Completas del P. Donostia, 2. alea. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1983
- FASLA, Dalila: *Lengua, literatura, música*. Errioxako Unibertsitatea.
- GURIDI, J: *La guerra y la música española*. Cfr. Musica, Madrid 1917, 24. zbkia. Artikuloa
- IZTUETA, Juan Ignacio de: *Viejas Danzas de Guipúzcoa-Gipuzkoa 'ko dantza Gogoangarriak*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968
- IRIBARREN, José María eta OLLAQUINDIA, Ricardo: *Refranero Navarro*. Fondo de estudios y publicaciones. Burlata, 1983
- LABAJO, Joaquina: *Pianos, voces y panderetas. Apuntes para una historia social de la música en España*. Madril: Endymion, 1988
- LANG, H: *La música en la civilización occidental*. Buenos Aires, 1963
- LUCIA, Ana: *Irakasleentzako musika*. Zarautz: EHU argitalpen zerbitzua, 2002
- MICHELS,U : *Atlas de música I*. Madril: Alianza editorial, 1982
- MICHELS,U : *Atlas de música II*. Madril: Alianza editorial, 1992
- NÁCAR, Eloino eta COLUNGA, Alberto: *Sagrada Biblia. (versión directa de las lenguas originales, hebrea y griega, al castellano)*. Madril: Biblioteca de autores Cristianos, 1956
- NIEBLA, Salvador: *The virtual drummer*. Bartzelona: Music Distribution, s.a., 1998
- OLABIDE, Erraimun: *Itun Zar eta Berría*. Bilbon, 1958
- PETERS, Mitchell: *Rudimental primer for the Snare Drummer*. Mitchell Peters. Los Angeles, 1990
- RAMADA, Manel: *Atlas de percusión*. Valencia: Rivera, 2000
- SACHS, Curt: *Historia Universal de los Instrumentos Musicales*. Centurión. Buenos Aires, 1947
- SERRANO, Montserrat eta GIL, Jesús: *Música I, II, III*. Alcalá de Guadaíra: Mad, S.L., 2000
- STRAUBINGER, Mons. Dr Juan: *Sagrada Biblia* (versión directa de los textos primitivos) The Catholic Press, inc. Txikago, 1967



SADIE, S. : *The New Grove Dictionary of Musical Instruments* (3. zbkia). Mc Millan Press. 1984

TXISTULARI ALDIZKARIA: Euskal Herriko Txistularien Elkarateak argitaratutako bilduma.

URKIZU, Imanol: *Panderoa, (historia eta metodoa)*. Ikerfolk.

USABIAGA, Joxe Inazio: *Atabala (atabala jotzen ikasteko eskuliburua)*. 187, Txistulari Aldizkaria. Donostia, 2001

## 6.9.2. Baliatutako Diskak

*Magna antología del folklore musical de España*  
M García Matos

*La tradición musical en España* bildumako:

- *Pandero cuadrado y panderetas en trasmonte*
- *Danzas del sur de Badajoz y norte de Huelva*
- *La Montaña Palentina*
- *Os ritmos bailables*
- *La cornisa Cantábrica*
- *Instrumentos tradicionales*

*Musiques traditionnelles des Açores*  
“Belaurora” taldearen eskutik

*Musiques et musiciens du monde* bildumatik:  
“Gourara” (Sahara)-ko musika

*Músicas del mundo* “M Asselineau, E Berel eta Trần Quang Hai”  
JM Fuzeau editoriala. (1998)

*Voyage musical. Rodrigues, Mauritius*  
Audivis Ethnic. 1998

Incansables Txaranga: *Leitzaz gero 25 urte kalez kale eta Giro Bero*

Trikitixa mundutik:

- *Tapia ta Leturia* maisuen diskak
- *Kepa Junkeraren* diskak
- *Imuntzo eta Belokiren* diskak
- *Maixa ta Ixiarren* diskak
- *Alaitz eta Mainerren* diska
- *Trikitixa (Basque Melodeon Gems)*
- *Trikitixa (An Introduction)*
- *Bizkaiko Trikitilariak: Luis Bilbao, Rufino Arrola eta Kepa Arrizabalaga.*  
Euskal Herriko Trikitixa Eguna, 2001.(Getxon)

*Egunkaria: Euskal Musika Bildumatik:*

- 7 zbakia: *Betiko trikitixa*: ( Auntxa eta Boni, Laja eta Landakanda, Martin eta Egañazpi, Sakabi eta Egañazpi, Tapia eta Leturia, Maltzeta Aita-Alabak, Epelde eta Iturbide, Zumarragako trikitixa, Astiasaran Anaiak, Rufino Arrola eta Txetxu Urrutia)
- 17 zbakia: Zaldibobo
- 21 zbakia: Kepa, Zabaleta eta Imanol
- 22 zbakia: Imuntzo eta Beloki

### 6.9.3. Orkestra erreperitorioa

Orkestra Sinfonikoen soinu potentziaren garapenarekin batera joan asmoz, perkusiojoleek teknika eta tresna berriak bilatu behar izan dituzte. Panderetaren kasuan herri musikan behintzat aldaketa ikaragarriak ez da eman orokorrean.

Herri musika eta musika kulta deritzenaren bi munduak elkar aberastu asmoz, panderetaren orkestra erreperitorioko lan aipagarrienak ekarri nahi izan ditugu, tresna honen arlo interesgarri bat ezagutu nahi duenarentzat. Era berean, orkestra perkusiojoleek herri musikaren grabazioak eskura ditzakete, jokera aztertu eta hauek era berean aberastu asmoz.

Partiturak (edo zatiak) lortu ondoren, grabazioak entzun eta lantzea da gure aholkua.

Paradoja kurioa gertatzen dela aipatu genezake: orkestra erreperitorioko panderetaren zati garrantzitsuenak, XIX mende amaiera eta XXm. hasieran musikan ere eman zen nazionalismo garaiko konpositoreek idatziak dira. Herriaren tresna herriaren ordezkari bihurtu zuten dudarik gabe.

*lhauteri erromatarraren obertura*  
Hector Berlioz (1803-1869)

*Carmen (saio tartekoa)*  
Georges Bizet (1838-1875)

*lhauteri obertura*  
Antonin Dvorak (1841-1904)

Peer Gynt suiteko *Dantza arabiarr*  
Edvard Grieg (1843-1907)

Scheherazade (4. mugimendua)  
Nicolai Rimski Korsakov (1844-1908)

Intxaur auslearen suiteko *Dantza arabiarr*  
Piotr Ilyich Tchaikovsky (1840-1893)

*Kapritxo Italiarra*  
Piotr Ilyich Tchaikovsky

*Iberia*  
Claude Debussy (1862-1918)

*Petrushka*  
Igor Stravinsky (1882-1971)

## **6.10. DVD-GIDA**

### **6.10.1. Erritmoak (lantzen)**

#### **Biribilketa (edo kalejira)**

- A motiboa
- B motiboa
  - B1 konbinaketa
  - B2 konbinaketa
  - B3 konbinaketa
- A motiboa
  - A1 konbinaketa
  - A2 konbinaketa
  - A3 konbinaketa

#### **Fandangoa (orripekoa, jota eta trikitixa)**

- A aukera
- B aukera
- A aukera kortxeatan
- A aukera hirukoteetan
- B aukera kortxeatan
- B aukera hirukoteetan
- A, B, C eta D motiboak
- A motiboa
- B motiboa
- C motiboa
- D motiboa

#### **Arin-Arina eta porrusalda**

- A aukera
- B aukera
- C aukera
- Maiz ikusi ohi dena
- A aukera: A1 konbinaketa
- A2 konbinaketa
- A3 konbinaketa
- A4 konbinaketa
- B aukera: B1 konbinaketa
- B2 konbinaketa
- B3 konbinaketa
- B4 konbinaketa
- C aukera: C1 konbinaketa
- C2 konbinaketa
- C3 konbinaketa
- C4 konbinaketa
- porrusalda

### 5/8 zortzikoa

- A motiboa
  - A1 konbinaketa
  - A2 konbinaketa
- B motiboa
  - B1 konbinaketa
  - B2 konbinaketa
- C motiboa
  - C1 konbinaketa
  - C2 konbinaketa

### 2/4 zortzikoa

- A motiboa
  - A1 konbinaketa
  - A2 konbinaketa
  - A3 konbinaketa
  - A4 konbinaketa
  - A5 konbinaketa

### 6.10.2. Abesti berriak

1. Biribilketa 100	00:30	20. Habanera 89	01:33
2. Biribilketa 120	00:25	21. Pasodoblea 70	00:29
3. Biribilketa 150	01:09	22. Pasodoblea 85	00:24
4. Biribilketa 160	01:04	23. Pasodoblea 100	01:17
5. Biribilketa 177	00:58	24. Huapangoa 110	00:13
6. Zuri-beltz Fandangoa 160	00:21	25. Huapangoa 130	00:29
7. Zuri-beltz Fandangoa 180	00:18	26. Huapangoa 150	00:25
8. Zuri-beltz Fandangoa 190	01:02	27. Huapangoa 168	01:53
9. Zuri-beltz Fandangoa 206	01:54	28. Baltza 90	03:12
10. Arin ariña 60	00:17	29. Baltza 110	02:37
11. Arin ariña 80	00:13	30. Baltza 130	02:37
12. Arin ariña 100	00:11	31. Baltza 158	01:50
13. Arin ariña 130	00:24	32. Tangoa 90	00:22
14. Zortzikoa 40	00:32	33. Tangoa 100	01:16
15. Zortzikoa 50	00:26	34. Tangoa 113	01:58
16. Zortzikoa 80	01:29	35. Rock-a 120	00:25
17. Zortzikoa 96	01:29	36. Rock-a 140	00:22
18. Habanera 60	00:18	37. Rock-a 160	00:56
19. Habanera 70	00:52	38. Rock-a 180	01:25